



SAILBURUA
LA CONSEJERA

AGINDUA, 2019KO AZAROAREN 26KOA, LAN ETA JUSTIZIAKO SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ BERMATZEN BAITA BIZKAIKO INDUSTRIA SIDEROMETALURGIKOAREN SEKTOREAN DEITUTAKO GREBAN EUTSI EGINGO ZAIELA KOMUNITATEARI EMAN BEHARREKO FUNTSEZKO ZERBITZUEI.

2019ko azaroaren 15ean, ELA, CCOO, LAB eta UGT sindikatuek greba deitu dute Bizkaiko industria siderometalurgikoaren sektorean, 2019ko azaroaren 28 eta 29rako eta abenduaren 4, 5, 12, 13, 18 eta 19rako. Egun osokoa da deia data guztietan, hau da, 00. 00etatik 24: 00etara. Hala ere, lan-txanda bat baino gehiago dituzten enpresen kasuan, greba lehenengo txandan hasiko da, nahiz eta aipatutako greba-egunak baino iehe hasi, eta azken txanda amaitu ondoren amaituko da, nahiz eta txanda egun horietako 24: 00ak baino geroago luzatu.

Deialdia egin dutenen arabera, grebaren helburua da *"Bizkaiko industria siderometalurgikorako eraginkortasun orokorreko hitzarmen sektorial bat adostu ahal izatea"*.

Deialdiak 60.000 langileri eragingo die, 2.000 enpresatan baino gehiagotan banatuta.

Espainiako Konstituzioaren 28.2 artikuluan, langileen greba-eskubidea aitortzen da haien interesak defendatzeko, horixe baita egungo zuzenbide-estatu sozial eta demokratikoak oinarrian dituen funtsezko eskubideetako bat. Konstituzioak, beraz, berdin babesten ditu greba-eskubidea eta zerrendatzen eta babesten dituen eskubide garrantzitsuenak, hala nola bizia, osotasun fisikoa, osasuna, hezkuntza, askatasunez zirkulatzea, informazioa askatasunez jasotzea eta auzitegian babes eragingarria jasotzea, besteak beste. Hain zuzen, Konstituzioak bete-betean babesten ditu, bai eskubide horiek guztiak, baita greba egiteko eskubidea ere.

Beraz, greba egiteko eskubidea erabiltzeak talka egin dezakenez herritarren gainerako oinarrizko eskubideekin, Konstituzioaren 28. eta 37. artikulueetan xedatutakoarekin bat etorritik, ezinbestekoa da neurri egokiak hartzea komunitatearentzako funtsezko zerbitzuei eutsiko zaiela ziurtatzeko, ez dadin edukirik gabe geratu gatazkan dauden oinarrizko eskubideetako bat bera ere.

Hala ere, aurreko premisa ondorioztatuta, agerikoa da funtsezko eskubideak mugatzen dituen edozein neurri konstituzionala izan dadin proportzionaltasunaren printzipioa zorroztasunez aplikatuz hartu behar dela; eta horretarako, hiru baldintza bete behar ditu neurri horrek: neurria aplikatuz proposatutako helburua lortu ahal izatea, hots, «egokitasun-judizioa» deritzona; egitatea aztertu ostean, helburu hori eraginkortasun berarekin lortzeko neurri apalagorik ez dagoela ondorioztatzea, hau da, «beharrizanezko judizioa» deritzona; eta, azkenik, neurria edo konponbidea orekatua edo neurtua izatea, haren aplikazioaren ondorioz guztion intereserako eragiten diren onurak edo abantailak gehiago direlako, auzian dauden beste ondasun edo balio batzuetan eragiten diren kalteak baino, hau da, «proportzionaltasun-judizioa, zentzu hertsian». Konstituzio Auzitegiak hainbat aldiz ebatzi du



gai hori (122/1990, 123/1990, 8/1992 eta 126/2003).

Aurreko erabakietatik ondorioztatu behar dugu komunitatearentzako funtsezko zerbitzuak emango direla ziurtatzeak mugatu egiten duela grebarako eskubidea baliatzeko aukera, eta, beraz, nahitaezkoa dela interes desberdinak kontuan hartuta zuhurtasunez jokatzeko. Hori guztia dela-eta, ziurtatze horrek berme gisa jardun behar du, eskubide kontrajarrien ezinbesteko koordinaziotik abiatuta, betiere ulertuta grebalarien eskubidea mugatu beharko dela –amore eman, Konstituzio Auzitegiaren hitzetan–, baldin eta haien interesak grebaren bidez babesteak komunitateari edo funtsezko zerbitzuaren hartzaileri zein zerbitzua jasotzeko eskubidearen titularrari eragiten dion edo eragin liezaiokeen kaltea larriagoa bada grebalarien errebindikazioek edo eskakizunek arrakastarik ez izateak eragingo lukeena baino. Horregatik, greba-deialdi honen aurrean, haren garapenaren ezaugarriak hartu beharko dira kontuan, eta, zehazki, haren denbora-tartea (8 lanaldi oso, bi egun jarraituko lau bloketan banatuta) eta jarduera-eremua (Bizkaiko industria siderometalurgikoaren sektorea). Espedientearen instrukzioan aurkeztutako dokumentazioa ikusita, grebak eragina izan dezake garraio eta argiteria publikoan, energiaren ekoizpenean eta banaketan, baita osasunerako eta hezkuntzarako eskubidean ere.

Sektore horretako azken greba-deialdiaren aurrean (irailak 30 eta urriak 1, 2, 3 eta 4), gobernu-agintaritzak honek 2019ko irailaren 26ko Agindua eman zuen, gutxieneko zerbitzuak ezarriz. Agindu horri ez zaio errekurtsorik jarri jurisdikzio-istantzietan.

Hala ere, sektore bereko aurreko greba-deialdian (maiatzak 23, ekainak 6, 7, 20 eta 21), gobernu-agintaritzak hiru agindu eman zituen gutxieneko zerbitzuak ezartzeko (maiatzaren 22ean, ekainaren 4an eta ekainaren 19an); horiei ezohiko beste agindu bat gehitu zitzaion, ekainaren 6koa, PETRÓLEOS DEL NORTE SA enpresaren segurtasunari eragiten zion ezohiko egoera baten aurrean. Hiru agindu nagusiei errekurtsioa jarri zitzaion Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, jurisdikzio-babeseko prozedura bereziaren bidez, eta sub iudice daude, gaur egun, planteatu ziren gaietako batzuk.

2019ko azaroaren 12an, Justizia Auzitegi Nagusiak 456/2019 epaia eman du, ELA sindikatuak jarritako 507/2019 errekurtsioan, zeinaren bidez aurkaratzen den Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailaren 2019ko ekainaren 19ko Agindua, haren bidez aldatzen baita 2019ko ekainaren 4ko Agindua, Bizkaiko industria siderometalurgikoaren sektorean deitutako greban komunitatearentzako funtsezko zerbitzuak emango direla bermatzekoa. Auzitegiak errekurtsioa baietsi, errekurritutako egintza zuzenbidearekin bat ez datorrela adierazi, eta egintza baliogabetu egin du.

Baliogabetutako aginduak Lan eta Justiziako sailburuaren 2019ko ekainaren 4ko Aginduaren xedapen-zatia aldatzen zuen, eta D atal bat gehitzen zion lehenengo ebazpen-zatiari, honela idatzita:

“D.- PETRÓLEOS DEL NORTE SAre enpresa kontratistetan, lan-harremanei buruzko martxoaren 4ko 17/1977 Errege Lege Dekretuaren 6.7 artikuluan xedatutakoa betez, grebak iraun bitartean bermatu beharko da emango direla pertsonen eta gauzen segurtasunerako, lokalen, makinan, instalazioen, lehengaien mantentze-lanetarako eta enpresako lanak berriro hasteko behar den beste edozein arretarako behar diren zerbitzuak. Ondorio horietarako, instalazioetan gerta daitezkeen matxurak konpontzeko beharrezkoak diren erretanak izendatu beharko dira, eta uneoro ziurtatu beharko da eragindako pertsonen eta instalazioen segurtasuna, bai eta petrolio-produktuen hornidura ere, funtsezkoak baitira. Era berean, horniduren eta zerbitzuen segurtasuna bermatzeko beharrezkoak diren



mantentze-zerbitzuak egin beharko dituzte.

Beharrezko zerbitzuak eta zerbitzu horiek eman behar dituzten langileak enpresa bakoitzaren eta greba-batzordearen artean adostuta izendatuko dira. Adostasunik ez badago, jurisprudentziak onartu du enpresaburuak izendatu behar dituela, aldebakarrez, zerbitzuak eta horiek eman behar dituzten langileak, hargatik eragotzi gabe erabaki horren berrikuspen judiziala egitea (Auzitegi Gorenaren 1993ko azaroaren 29ko eta 2003ko maiatzaren 28ko epaiak)."

Gainerakoan, indarrean jarraitzen zuen 2019ko ekainaren 4ko Agindua.

Deialdi honi dagokion espedientearen instrukzioan era askotako enpresen idazkiak jaso dira. Hain zuzen ere, enpresa batzuek gutxieneko zerbitzuak ezartzeko eskatzen dute, ematen duten zerbitzua funtsezkoa dela oinarri hartuta; gainerakoek, berriz, eskatzen dute ezar daitezela behar diren zerbitzuak, martxoaren 4ko 17/1977 Errege Lege Dekretuaren arabera, bermatuta egon daitezzen pertsonen eta gauzen segurtasuna; lokalen, makinaren, instalazioen eta lehengaien mantentze-lanak, eta enpresaren lanak berriro hasteko behar den beste edozein arreta.

Egokia da aztertzea gutxieneko zerbitzuak eskatzen dituzten enpresek ematen dituzten zerbitzuak funtsezkoak diren ala ez.

DF OPERACIONES Y MONTAJES SA enpresak, PETRÓLEOS DEL NORTE SA enpresarekin –petrolio-produktuak ekoiztu eta hornitzen ditu– zerbitzuak emateko kontratua egikaritzuz, Muskizko findegiko solidoak maneiatzeko instalazioak ustiatu eta mantentzeko zerbitzua ematen du. Kontratua gauzatzeko, 21 langile ditu lanean; lanetan zuzeneko esku-hartzea duten langileak dira horietatik 18, bi lan-txandatan banatuta: 06: 00etatik 14: 00etara eta 14: 00etatik 22: 00etara. Labur esanda, siloetan eta metatze-lekuetan ekoiztiko materiala lekuz aldatzea eta ebakutzeta da enpresaren zeregina, eta lan horiek ezinbestekoak dira findegiaren ekoizpenerako. Zerbitzu horiek ez emateak zerbitzutik kanpo utziko litzuke enpresak esku hartzen duen unitateak, eta horrek ekoizpen-unitateen karga jaistea ekarriko luke, baita geldiaraztea ere, jarduerarik gabeko aldiak irauten badu. Horri dagokionez, azpimarratu behar da findegiaren ekoizpen-prozesua ur-jauzi bidezkoa dela, eta, beraz, geldialdiak beste unitate batzuei eragin liezaiekeela. Hau da, enpresa horrek ematen dituen zerbitzuak energiaren ekoizpenarekin eta hornidurarekin estuki lotuta daude, eta funtsezkotzat jotzen dira horiek, modu erabakigarrian laguntzen baitute oinarrizko edota premia biziko ondasun eta zerbitzuak sortzen dituzten azpiegiturak eta ekoizpen-prozesuak mantentzen, eta, jakina, bermatu egin beharko dira greba-eskubidea baliatzen den bitartean.

ELDU SA enpresak, besteak beste, instalazio elektrikoaren mantentze-lanak egiten ditu, Osakidetzarekin, Metro Bilbaorekin, Eusko Trenbideekin, Elkargoekin eta abarrekin sinatutako kontratuen arabera. Enpresa horiek osasun-zerbitzu publikoak, garraioa, hezkuntza, zerbitzuak ... ematen dituzte, hau da, beren jarduera estuki lotuta dago energia-hornidurarekin eta funtsezko beste eskubide batzuekin, hala nola osasunarekin, hezkuntzarekin eta zirkulazio askearekin. Beraz, zalantzarik gabe, gutxieneko zerbitzu bat bermatu behar da, bizia galtzea ere ekar lezaketan gorabeheren aurrean.



ELECTRICIDAD MARTÍN SA enpresak, besteak beste, argiteria publikoa mantentzeko zerbitzua ematen du Leioan, Etxebarrin eta Plentzian. Bestalde, TECUNI enpresak, besteak beste, Bilboko argiteria publikoa mantentzen du, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren mende dauden Bizkaiko errepideetako argiteria publikoa ere bai. Gutxieneko zerbitzurik ez ezartzeak udal-mugarte eta errepide-zati horiek argiztapenik gabe geratzea eragin lezake, eta horrek arriskuak ekar litzake pertsonen eta ibilgailuen zirkulazioan.

Enpresa eskatzaileek ematen dituzten zerbitzuen funtsezkotasuna, beraz, bermatzen dituzten zerbitzuak funtsezko izatearen ondorio da: energiaren ekoizpena eta hornidura, zirkulazio askea, osasuna eta hezkuntza.

Energia-hornidurari dagokionez, Hidrokarburoen Sektoreari buruzko urriaren 7ko 34/1998 Legeak 2.2 artikuluan ezartzen duenez, petrolio-produktuen merkatuarekin eta kanalizazio bidezko gas erregaien hornidurarekin lotutako jarduerak kontsumitzaile eskatzaileen hornidura bermatuz gauzatuko dira nazio-lurraldearen barruan, eta interes ekonomiko orokorreko jardueratzat hartuko dira.

Bestalde, honako hauek osatzen dute hidrokarburoen sektorean gutxieneko zerbitzuak ezartzeko erreferentziatzeko arau-esparrua: 1477/1988 Errege Dekretua, abenduaren 9koa, petrolio finitzeko enpresei agindutako jarduera gauzatzeko oinarrizko gutxieneko zerbitzuak ezartzen dituen; 1478/1988 Errege Dekretua, abenduaren 9koa, kanalizazio bidezko gas-erregaiak hornitzeko eta ontziratu gabeko petroliotik likidotutako gasak hornitzeko zerbitzu publikoko jarduerak egiteko gutxieneko zerbitzuak ezartzen dituen, eta 425/1993 Dekretua, martxoaren 26koa, petrolio-erregaien eta -erregaien garraiorako eta biltegiatzerako, handizkako banaketarako eta txikizkako banaketarako jarduerak egiteko baimena duten enpresek funtsezko zerbitzuak emateko bermeei buruzkoa.

Zirkulazio-askatasunerako eskubidea (Konstituzioaren 19. artikulua) oinarrizko beste eskubide batzuk baliatzeko oinarria da, hala nola bizitza, osotasun fisikoa eta osasuna babesteko behar den laguntza jasotzeko eskubidea; pertsonen segurtasuna eta osotasuna babestekoa, batez ere – Konstituzioaren 15. artikulua –, eta horrek greba-egoeretan "funtsezko" izaera ematen die, bai eta greba egiten duten zentroetara joateko eskubidea ere. gainerako herritarren lan- eta eskola-lanak garatzen direnean. Eskubide horiek ezin dira behar bezalako babesik gabe geratu zilegi den greba-eskubidearen aurrean.

Osasuna babestea oinarrizko eskubideetako bat da edozein zuzenbide-estatutan. Gaur egun, eskubide hori herritarrek gutxieneko osasun-prestazioak eskatzeko duten eskubidetzat gauzatzen da, giza duintasunaren eta estatu bakoitzaren garapen sozial eta ekonomikoaren mailaren arabera. Horrela, Giza Eskubideen Deklarazioan (NBE, 1948), hala baieztatzen da 25.1 artikuluan: «Pertsona orok du osasuna eta ongizatea izateko eskubidea, eta batik bat, beharrezkoak diren mediku-sorospena eta gizarte-zerbitzuak izatekoa», eta ildo beretik doaz Europako Kontseiluak onartutako Europako Gutun Sozialaren 11. artikulua (Turin, 1961) eta Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Hitzarmenaren 12. artikulua (NBE, 1966). Greba-eskubidearen eta Konstituzioaren 15. eta 43.1 artikuluetan jasota dauden bizitzeko, osotasun fisiko eta moralerako eta osasuna babesteko konstituzio-eskubideen artean sortutako gatazka, beraz, azken horiei eutsiko zaiela bermatu beharrak baldintzatuko du.



Hezkuntzarako eskubidea Konstituzioaren 27. artikuluan aitortutako oinarrizko eskubidea da, zentzu zabalean ulertuta, eta, beraz, auzitegiek behin eta berriz adierazi duten bezala, funtsezkoa ere bada; horrenbestez, esparru horretan ere neurriak hartu beharko dira, eskola-jarduerei eutsiko zaiela bermatzeko.

Lehenago aipatutako 456/2019 Epaia betez (Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak emana 2019ko azaroaren 12an, 507/2019 errekurtsioan, 2019ko ekainaren 19ko Agindua baliogabetuz), ez dira beharrezko zerbitzuak ezarri behar, martxoaren 4ko 17/1977 Errege Lege Dekretuaren 6.7 artikuluan xedatutakoa betetzeko, bermatuta egon daitezen pertsonen eta gauzen segurtasuna; lokalen, makinen, instalazioen eta lehengaien mantentze-lanak, eta enpresaren lanak berriro hasteko behar den beste edozein arreta. PETROLEOS DEL NORTE SAREN enpresa kontratistek eskatu dituzte zerbitzu horiek.

Lan-harremanei buruzko martxoaren 4ko 17/1977 Errege Lege Dekretuaren 10. artikulua bigarren paragrafoak "gobernu-agintaritzari" esleitzen dio greba-kasuetan mota horretako zerbitzuak emango direla ziurtatzeko beharrezko neurriak hartzeko eskumena –horretarako beharra dagoenean–. Erreferentzia hori, Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziak manu horretaz egindako interpretazioaren arabera (besteak beste, apirilaren 8ko 11/1981 Epaia, uztailaren 17ko 26/1981 Epaia eta apirilaren 24ko 51/1986 Epaia), Gobernuari edo gobernu-ahalak baliatzen dituzten organoei egindakotzat jo behar da.

Inguruabar horiek direla-eta, gobernu-agintaritzak agindu honetan zehaztutako gutxieneko zerbitzuak ezarri behar ditu, gatazkan dauden eskubideen funtsezko edukia bateragarri egiten saiatzeko.

Gai honetan gobernu-agintaritzari eskumen eskusiboa esleitzeak bermatu nahi du greba-eskubidea baliatzeak izan behar dituen mugak –funtsezko zerbitzu jakin batzuk mantentze aldera, oinarrizko beste eskubide batzuk betetzera bideratuta baitaude–, Zuzenbidearen arabera baino ezin izango direla ezarri, eta gobernu-erantzukizuna eta -ahala duenak baino ezin izango dituela ezarri.

Horregatik, Lan Harremanei buruzko martxoaren 4ko 17/1977 Errege Lege Dekretuaren 10.2 artikuluan aipatzen den prozedura bideratu da.

Lan eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 84/2017 Dekretuak (maiatzaren 28ko 81/2019 Dekretuaren bidez aldatua), 3. artikuluan, titularrari esleitzen dizkio azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuan (Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen) lan-arloko legeria betearazteko jasotako eskumenak. Dekretu horren 2. g) atalean zehazki, zerbitzu publikoak edo premia biziko eta atzerazineko zerbitzuak emateko ardura duten enpresa, erakunde eta instituzioei eragiten dieten greba-kasuetan komunitatearentzako funtsezko zerbitzuei eutsi egingo zaiela ziurtatzeko neurriak zehazteko eskumena jasotzen da, ekainaren 11ko 139/1996 Dekretuaren bidez eskuordetua.

Horregatik guztiagatik, Lan eta Justiziako sailburuak, Eusko Jaurlaritzaren ordezkariak jasota, honako hau



**EBAZTEN DU:**

LEHENA.- Bizkaiko industria siderometalurgikoaren sektoreko langileei azaroaren 28an eta 29an eta 2019ko abenduaren 4an, 5ean, 12an, 13an, 18an eta 19an deitu zaien greba-eskubidea egikaritzeko, 00:00etatik 24: 00etara bitarteko ordutegian –lan-txanda bat baino gehiago dituzten enpresetan izan ezik, horietan deialdia lehenengo txandarekin hasiko baita eta azkenarekin amaitu–, baldintza izango da ondorengo funtsezko prestazioak eta gutxieneko zerbitzuak betetzea:

A.- DF OPERACIONES Y MONTAJES SA enpresan, PETRONOR lantokian:

a. Sufre-kamioiak SR6n kargatuko dira, koke-kamioiak AL6n kargatuko dira eta landa-laguntza emango da AL6ko banda garraiatzaileen geldialdi/desbideratze jarrailuetan.

b. Gutxieneko zerbitzuak hiru langilek emango dituzte eguneko lan-txanda bakoitzean (garabi-operadore batek, kontrol-gelako operadore batek eta landa-operadore batek). Lehenengo txanda 06: 00etatik 14: 00etara; bigarren txanda 14: 00etatik 22: 00etara.

B.- ELECTRICIDAD MARTÍN SA enpresan:

a. Leioan, Etxebarrin eta Plentzian argiteria publikoa mantentzeko erretenen sistema mantenduko da telefono bidez.

C.- ELDU SA enpresan:

a. Erretenen sistema mantenduko da telefono bidez.

D.- TECUNI enpresan:

a. Erretenen sistema mantenduko da telefono bidez, Bilbo hirian eta Bizkaiko Foru Aldundiaren mendeko errepideetan argiteria publikoa mantentzeko.

BIGARRENA.- Zerbitzu horiek greba egin behar ez duten langileek emango dituzte, ezarritako gutxieneko zerbitzuak langile horiekin betetzea lortzen ez denean izan ezik.

Langileen ordezkariak entzun eta gero, lantokietako zuzendaritzak esleituko ditu langileek bete beharreko eginkizunak, betiere aurreko artikuluan eta indarrean dauden legeetan ezarritako mugak errespetatuz.

HIRUGARRENA.- Agindu honen aurreko apartatuetan bildutako gutxieneko zerbitzuak ezin dira aldatu zerbitzu horiek egiteko izendatuta dauden langileen aldaketen edo lanuzteen ondorioz. Halakorik gertatuz gero, legez kontrakotzat joko dira eta horiek egiten dituztenak erantzule izango dira, eta erantzukizuna eskatuko zaie indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren arabera.

LAUGARRENA.- Aurreko artikuluetan xedatutakoa gorabehera, greba egiten duten langileen eskubideak ez dira inolaz ere murriztuko, ezta grebarako deia egin dutenen eskakizunen izapidetzea eta ondorioak mugatuko ere.





BOSGARRENA.- Jakinarazten denean jarriko da indarrean agindu hau.

SEIGARRENA.- Agindu honen berri eman behar zaie interesdunei, urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak) 40. artikuluan xedatutako moduan; halaber, ebazpenak administrazio-bidea agortzen duela jakinarazi behar zaie, eta horren aurka administrazioarekiko auzietarako errekurtoa jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren dagokion salan, ebazpena jakinarazten denetik kontaktzen hasita 2 hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera.

Era berean, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan aurreikusitakoari jarraikiz, jakinarazi behar zaie: agindu honen aurka aukerako berraztertzeke errekurtoa aurkez dezaketela lan-agintaritzan, agindua jakinarazi eta biharamunetik kontaktzen hasita hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko azaroaren 26a



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

LAN ETA JUSTIZIA SAHIA
DEPARTAMENTO DE TRABAJO
MARIA JESÚS CARMEN SAN JOSÉ LÓPEZ
LAN ETA JUSTIZIAKO SAHIBURUA

